



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko MARTXOA - 153. zenbakia

Batzar Nagusia, martxoaren 29an Durangon

Urtarrilan Araba eta Nafarroako batzarrak egin ostean, martxoan Bertsularien Lagunak, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarteek egingo dituzte. Horren ostean urteroko hitzordua ailegatuko da, Euskal Herriko Batzar Nagusia egingo dugu Durangon hilaren 29an.

Aurtengo Batzar Nagusia martxoaren 29an izango da, goizeko 11:00etan, Durangoko Landako elkartegian. Ohi bezala, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakariak emango dio hasiera batzarrari. Horren ostean 2013. urteari errebasoa egingo diogu, urteko memoria eta balantze ekonomikoak aurkeztuta.

Behin atzera begirakoarekin amaituta, aurrera begiratzeko txanda izango da eta urte honetarako esku artean ditugun egitasmoak ezagutuko ditugu.

Herrialde bakoitzak bere egoeraren berri emango du lehendakariaren ahotik: Gipuzkoatik, Saroi Jauregi; Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nafarroatik, Joana Itzaina; Bizkaitik, Asier Ibaibarriaga; Arabatik, Ekaitz Elorriaga eta Nafarroatik, Alaitz Rekondo.

Herrialdeekin amaitu ostean, 2014rako egitasmoak sailez sail errebasatuko ditugu: Koordinazioa, Genero Taldea, Transmisioa, Sustapena, Lanku, Ikerkuntza, Xenpelar Dokumentazio Zentroa eta Komunikazioa. Horren ostean, 2014ko aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko da.

Batzarrarekin amaitu aurretik lehendakariaren izendapenari ekingo zaio. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen edo herrialdeko zuzendaritzek aurkez ditzakete lehendakariak. Hautagaiak aurkezteko epea Batzar Nagusia baino astebete lehenago itxiko da.

Batzarraren ondoren, bazkaria

Behin Batzarra amaituta Durangon bertan bazkaria egingo da. Plateruenea Kafe Antzokian egingo da bazkaria, eguerdiko 14:30ean. Bazkarira joan nahi duten bazkideek aurretik konfirmatu behar dute, 943694129 telefono zenbakian edo komunikazioa@bertsozale.com helbide elektronikoan. Hilaren 21a da horretarako azken eguna.

Batzar Nagusira joaterik ez daukanak apirilko Bertsozalean jasoko du horren inguruko informazio zehatza.

Herrialdeko batzarrak

Euskal Herrikoa baino lehenago egin gabe dituzten herrialdeek haien batzarrak egingo dituzte. Bizkaiko Bertsozale Elkartearen batzar nagusia martxoaren 15ean izango da eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearena martxoaren 22an, Azpeitiko Baigeran.

Azken horretan ere, batzar ostean bazkaria egingo dute. Bazkarirako alde aurretik izena eman behar da, 943670575 telefonoan edo gipuzkoa@bertsozale.com helbide elektronikoan.



lazko Batzar Nagusia.//XDZ



AMAIA ITURRIOTZ

Ernarratzen sariketako irabazlea
Azpeitia, 2014-II-14

Gaia: Ez zenuen uste, baina bizitzak beste aukera bat eman dizu

Onkologian ingresatuta egon naiz hainbeste gauz bularren neukan minbizia ta zergatik pasa zen galdez ibiltzen nintzen ta sendatu naiz borroka dotore batez. Alboko oheko neska joan da bizitzak ein dio ihes ta ez dakit nork erabaki dun nork merezi dun ta nork ez.

Zein gogorra den kimioa hartzen pasatzea arrastia! Ta etorkizunak zer dakarren're ez jakitea garestia. Hantxe jardun naiz sendatu arte ez da izan kontu ezta baina aurrera irten naiz eta gaur sentitzen naiz aztia egunez egun kunplutuko det eiteke dedan gutzia.

Bular bakarrak bizitzeko dut behar hainbeste motibo: familikoak maite zaituzte ze maitasun ta ze giro jasoa dudan berriro negar egiten nuen aldirio. Nola bizitzak aukera eman didan pozik naiz berriro bi eskuekin helduko diot ta ez dit alde egingo.

Abiatzera doa Eskolarteko berria

Azken urteotan egin den hausnarketaren ondorioz, eskolarteko txapelketak aldaketa sakonak ezagutuko ditu hemendik aurrera. Berrituta dator bai filosofian baita formatuetan ere. Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek elkarlanean antolatuko dugu, lehen aldiz, herrialde guztietan oinarri nagusi berak konpartituko dituen Eskolartekoa.

Orain arte bai herrialdeetan bai Euskal Herri mailan egin diren eskolarteko txapelketak bi multzo nagusitan banatu ohi izan dira; 15 urtetik beherakoentzat, eta 15 eta 18 urte bitartekoentzat. Aurrerantzean horiek mantenduko dira, baina biek hainbat aldaketa esanguratsu izango dituzte.

Txikientzat bertso merenduak

15 urtez beherako haurrak ez dira txapelketa batean lehiatuko. Bertso merenduak egingo dira eurentzat hainbat herritan, inguruko bertso-eskoletako taldeak elkartuz, eta giro hurbilean bertsoan eginez.

15-18 urtekoak, txapelketan

Gazteek txapelketa gustuko dutela adierazia dutenez, urtean zeharreko bertso merendu eta gazteen saioez gain, 15 eta 18 urtekoek txapelketan ere parte hartzeko aukera izango dute. Nahi duten rolean egin ahalko dute: bertsolari gisa, zein gai-jartzaile gisa. Antolakuntza lanetan ere parte hartzeko gonbita egingo zaie.

Kanporaketak herrialdeka egingo dira, formatu goxoa: bertso afariak zein bertso merenduak eginez, edo saioak eskainiz areto txikietan. Herrialdetako finalak, berriz, oholtzan izango dira, herrialdeko Bertso-eskolen Egunaren baitan.

Aurtengo Euskal Herriko finala eta festa ekainaren 21ean izango da, Orion.

Sari nagusia, negulekuak

2014ko Gabonetako oporraldietan antolatuko dira, lehen aldiz, Euskal Herri mailako negulekuak; 15-18 urteko gazteei zuzenduta, aterpetxe batean. Bertan parte hartzeko aukera zabalduko zaie bertso-eskoletako gazte guztiei. Eskolartekoan Euskal Herriko finalista izan direnek, berriz, dohainik izango dute egonaldia.



Trebatzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen du Eskolartekoa.//XDZ

Txapelketaren egutegia 15-18 urtekoak, bat-batekoan

Kanporaketak

ARABA

-Maiatzean 3 kanporaketa saio izango dira.

BIZKAIA

-Maiatzak 20, Deustu, 15:00etan
-Maiatzak 21, Algorta, 15:00etan
-Maiatzak 22, Bermeo, 15:00etan
-Maiatzak 23, Elorrio, 15:00etan

GIPUZKOA

-Martxoak 7, Zarautz. Urpekoak elkarte (Azken Portu), 19:00etan.
-Martxoak 14, Lasarte. Harrieskaileta elkarte, 19:00etan.
-Martxoak 21, Zumarraga. Ama-Lur elkarte, 19:00etan
-Apirilak 4, Mutriku. Gaztetxea, 19:00etan
-Apirilak 10, Azkoitia. Iraurgi elkarte, 19:00etan
*Bertso-afaritarako sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eu atarian jarriko dira.

IPARRALDEA

-Apirilak 26, Baigorri. Bi kanporaketa saio izango dira, Oronozia aterpetxean, haurren Topaketen barnean.

Finalak, Bertso-eskolen Egunaren baitan

-Arabako Bertso-eskolen Eguna maiatzean izango da.
-Bizkaiko Bertso-eskolen Eguna. Ekainak 7, Gernika, 11:30ean.
-Gipuzkoako Bertso-eskolen Eguna. Maiatzak 11, Arrasate. Amaia Antzokian, 11:00etan.
-Iparraldeko Bertso-eskolen Eguna. Maiatzak 31, arratsaldez.
-Nafarroako finala eta bertso merendua apirilaren 11an izango da.
-Euskal Herriko finala eta festa. Ekainak 21, Orio.

Eskolartekoa kopurutan

-Guztira 14 kanporaketa saio izango dira, eta 6 final eta festa.
-15-18 urteko 132 gazte ariko dira bertsoan. Gai-jartzaile taldean parte hartzeko aukera ere emango zaie kideei.
-Gaztetxo horiek Euskal Herriko 37 bertso-eskoletako partaideak dira.

Barnetegiak Bizkaian eta Araban

Bizkaiko Bertsozale Elkartek neguko barnetegia egin zuten Gorozikan otsailean. Herrialdeko 30 gaztek hartu zuten parte barnetegian, eta horretan bertsoak eta aisialdia lotzeko aukera izan zuten.

Arabian ere barnetegiak antolatu ditu apirilera Arabako Bertsozale Elkartek. Aiaraldeko barnetegia inguruko gaztetxoei begira egingo da Espejon apirilaren 22tik 24ra. Asteburu berean Gorbeialdeko barnetegia egingo dute Sarriako aterpetxean.



30 bertsolari gaztek hartu zuten parte Gorozikako negu barnetegia.//BBE

Taldekako ekimenek aurrera segitzen dute Araban eta Nafarroan

Otsailean abiatu ziren bai Arabako Bertso-kuadrilla artekoa, baita Nafarroako Bardoak taldekako bertso ekimena ere. Biek Aste Santu aurretik apirilean dute amaiera.

Arabian, kuadrilla artekoa

Arabako Kuadrilla artekoaren kasuan, guztiz lehiarik gabeko ekimena da. Saillapenik ez dago, autogestionatua, herrikoia eta taldekakoa da. Bi sailetan daude banatuta parte-hartzaileak: idatzikoan eta bat-batekoan 300 parte-hartzaile inguru ditu taldekako ekimen honek eta osotara 19 saio antolatu dituzte. Martxoan Kuadrilla artekoa beste sei saio eskainiko ditu Zaldondo, Izarra, Gasteiz, Amurrio, Ametzaga eta Aramaion.

Kuadrilla artekoari amaiera emateko egun osoko festa antolatu dute apirilaren 5erako Agurainen. Egun horrek topaketa izaera du talde guztiek parte hartu hal izateko. Goizetik hasita, ekitaldi ugari izango dira herrian, bertsoa, musika eta giro ona oinarri dutela.

Egun horretan herri bazkaria egingo da, 12 eurotan. Bazkarira joan nahi dutenek aurretik izena eman behar dute araba.sustapena@bertsozale.com helbide elektronikoan.

Nafarroan, Bardoak

Otsailean hamasei saio jokatu ondoren, Bardoak taldekako bertso ekimenak bigarren faseari ekingo dio martxoan, hilaren 7tik 30era. Sei dira bigarren fase horretara sailkatu diren taldeak, Iruñeko bi, Baztan-Malerrekako bat, Baztango bat, Leitzako bat eta Lesakako bat. Sei horiek binaka izango dituzte hurrengo saioak, joan-etorrikoak, osotara sei saio izango dira martxoan. Hortik finalera pasako diren hiru taldeak aterako dira.

Bardoak ekimenak apirilaren 12an izango du finala Lesakako frontoian. Jai giroko ekitaldia izango da eta ondoren afaria izango da.

Arabako Bertso-kuadrilla artekoaren zein Nafarroako Bardoaren informazio osoa eta gaurkotua www.bertsozale.com webgunean atal berezietan aurkituko duzue.



Puntua jarrita

GILLEN HIRIBARREN

Plazagizon pertsularia gaur egungo bozeramaile?

Ai, Joana, erantzun ainitz dituen bakarkako gai zabal bat emaiten dautan hor...

Gure Euskal Herriko Iparraldeko hiru probintzien egoerak aztertu ditzagun lehen lehenik. Gure eskuara maitearen erabilpen eta ulermen maila lekuko, bertsolaritzaren publikotza aski baldintzatua dela iduritzen zaidan hizkuntzaren faktorea aztertu ondoan.

Bigarrenik, iraganeko mamu batzuen kontra gabiltzan beldurarekin nagon. Xalbador eta Mattin erreferentzia izanaren itzalak etzakinat ez ote duen bertsolaritzaren aurpegi zaharkitu bat emaiten batzuen baitan. Egia baldin bada ere lekuko izar berriak loratzen ari direla, aurpegi berriak heldu dira gibeletik Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuko plazak segurtatuko dituztenak geroari begira.

Erreferentzia beharrak eta hurbiltasun falta, hirugaren oztopo. Euskal dantza, herri kirolak eta euskal kultura orokorraren pare, telebista egunkari eta irrati hedatuenetan, leku guti emana zaio gure kulturari. Gutiegi agian, ene uste apalean haatik ez da nahiko mediatizazio egiten eta abstrakto bilakatzen den aktibitate bat bihurtzen da gure bizipide oro. Zertarako bertsotan aritu? Zer ekarriko dauku? Zer leku du bertsolaritzak?

Laburbilduz, euskal munduaren harmailetan lanean ari ez den baten paperetik bertsolaritza aski uruneko afera dunala iduritzen zaidan.

Halarik ere, gure probintzietan bertsolariak izan din eta oraino ere atxikitzen din halako leku sakratu bat, publiko jakin batek preziatzen dakiena. Auzo herrien begi kritikoaren mihia izan behar din bertsolariak, tobera munstrek gordinki erran dezaketena arra hartu eta beste ikuspundu batetik jorratzen jakin behar duena, lekuan lekuko jenderari hurbilduz/egokituz.

Plazagizon pentsatua, iriaren maliziaz ikasgaiak emaiten dituena, "tabou"-a dena argitaratzen duena, zirtzilen "altavoz" gisa, nolazpait. Ene uste apalean, jadanik sortua den plaza hortan zer egina badinagula uste dinat, beste munduko bertsulari ezaguna izan gabe, norberak bere eskualdean bere ekarpena egiten duena eta herriaren kulturari osotasuna eskaintzen diona.

Hau dun ene ikuspundua, tartaloren begi bakarretik ikusirik... Konparazio poxi bat emaiteko gisan, bigarren begi bat gehitzen baginakoke, zer dion?

Huna beraz Aitor Tautala hiretzat doakikan puntua: Bertsulari kontzientziadun eta aktibo gisa, zuen paisaia diferenteki margotua dela suposatuz. Zertan ikusten duk bertsolari baten papera? Nola errexu leikek bertsulariaren gizarteratzea?

Koplak

Bertso-udalekutan parte hartu nahi?

Uztaila eta abuztuan izango dira aurtengo bertso-udalekuak, 5 herritan: Arrazola, Baigorri, Orio, Irañeta eta Zuhatzan.

9 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek izena emateko epea martxoaren 11n zabalduko da. Hasieran lehentasuna bertso-eskoletako partaideek zein Bertsozale Elkarteak bazkide diren gurasoen seme-alabek izango dute izena emateko aukera.

Horrez gain, begirale, sukaldari zein zuzendari gisa izena emateko epea zabalik dago, martxoaren 17ra arte.

Izen-ematea eta informazioa: www.bertsozale.com webgunean edo 943 69 41 29 telefonoan.

Poto-Finixa



Arabako marrazo kuadrillen eraso

Arabako Bertsozale Elkarte

BBK sariketaren edizio berria Bizkaian

Martxoaren 11n abiatuko da Markina-Xemeinen BBK sariketaren edizio berria. Aurtengoa 22. edizioa izango du Bizkaiko bertsolari gazteei zuzendutako sariketa ezagun honek.

Sei saio izango ditu BBK sariketak eta finala hilaren 28an jokatuko da Bilboko Kafe Antzokian.

Lanku **10**

TXIMELA
KAPITAINAREN IZARRAK



Joseba Tapia ren emanaldia eta diska, www.lanku.com en

TXIMELA
KAPITAINAREN IZARRAK